



PRENTSA OHARRA

Zinexit zinema erakusketak programazioa zabaldu eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 70. urteurrena ospatzen du

- Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideak, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzak antolatzen duen Elkarbizitaranzko 9. Zine Erakusketak, doako sarrera izango duten bost film programatu ditu, besteak beste “12 hombres sin piedad” film klasikoa.
- Emanaldiak GAURTIK OSTIRALAK 23ra BITARTEAN izango dira Bilboko Golem zinema aretoetan, 19:30ean, eta emanaldi horiez gain, DBHko ikasleentzako hiru emanaldi eta txikienezako beste bat eskainiko dira ere. Erakusketa honen luzapena Barakaldo, Basauri eta Vitoria–Gasteizen izango da ere.
- Programatutako HIRU filma (“A year of hope” daniarra, “When the war comes” txekiarra eta “City of ghosts” iparramerikarra) ESTREINALDIAK izango dira erakusketa honetan
- Proiekzioen ondoren solasaldiak izango dira film bakoitzak islatzen duen gaian adituak diren pertsonen partaidetzarekin: Eva Silván, Euskadiko Save the Children GKEko zuzendaria; Jesús Álvarez, Euskadiko Amnistía Internacionaleko kidea; Maribel Izcue, 5W Aldizkariko nazioarteko informazioan aditua den kazetaria; Pau Guillén, LGTBI Zinegoak zinemaldiko zuzendaria eta sexu-orientazioagatik bere herrialdetik ihes egin behar izan zuen Adolfo Guerra errefuxiatua

ZINEXIT 2018ko BIDEOA: <https://vimeo.com/301136280>

Informazio gehiago: <http://www.zinexit.net>

Bilbo, 2018ko azaroak 19.– Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Zinexit, Bizikidetzaranzko Zine Erakusketaren bederatzigarren edizioak giza eskubideen ospakizun bihurtu nahi izan du, Nazio Batuek deklarazio unibertsala aldarrikatu zutenetik 70 urte bete direnean. Ospakizun hau ekimen haren eskerrona eta aldi berean, alor honetan betetzear dauden erronkez jabetu eta hausnarketa egitea ere bada.

Oroitzapen honekin bat eginez, Zinexitek bere programazioa zabaldu eta gaur arratsaldetik ostirala, 23ra bitartean, bost film eskainiko ditu. Hauetako hiru estreinaldiak dira gure karteldegietan, eta amaitzeko, Sidney Lumet-en “12 hombres sin piedad” maisulan klasikoa izango dugu. Proiekzio guztiak izango dira 19:30etik



aurrera Bilboko Golem Zinemetako 1. aretoan. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena, edukiera bete arte, leihatilan jaso beharko da.

Arratsaldeko bost emanaldi hauekin batera, Zinexitek Euskal Herriko beste hiru herritara luzatzen du bere jarduera (Barakaldo, azaroak 20an, Vitoria-Gasteiz 28an eta Basauri 29an). Horrez gain, ikasleentzako prestatu diren emanaldietan, lehen mailako ikasleentzat animaziozko film bat eta DBHkoentzat beste film luze bat eskainiko dira, bakoitzari dagokion giza eskubideak jorratzeko material didaktikoarekin batera.

Halaber, Zinexiten lehendabiziko edizioaz geroztik ohikoa denez, filmaren emankizuna amaitu ondoren, parte hartzaile guztiei zuzendutako solasaldi bat izango da, film bakoitzak eskaintzen duen gaian adituak direnen partaidetzarekin. Solasaldi hauetan urte honetan parte hartuko dutenen artean honako hauek izango ditugu: Eva Silván, Euskadiko Save the Children GKEko zuzendaria; Jesus Álvarez, Euskadiko Amnistía Internacionaleko kidea; Maribel Izcue, 5W Aldizkariko nazioarteko informazioan aditua den kazetaria; Pau Guillén, LGTBI Zinegoak zinemaldiko zuzendaria eta sexu-orientazioagatik bere herrialdetik ihes.

Monika Hernando, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaria; Octavio Gonzalez, Zinexit-eko programatzailea; eta Itziar Urtasun, Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak Saileko Zinegotzia izan dira gaur goizean Azkuna Zentroko Bastida Aretoan Zinexit zinema erakusketa aurkeztu dutenak. Monika Hernandok esan duenez, azpimarratzekoa da zine erakusketaren bederatzigarren edizioa Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 70. urteurrenarekin bat egitea. Horren ildoan, "Defenda ditzagun zuzentasuna, justizia eta giza duintasuna" dugu Nazio Batuek zuzendu duten slogana, eta euskal instituzioek bat egin dute eskerron ideiarengatik inguruko mezu partekatu bat zabalduz: "Eskerrak Giza Eskubideei" existitzeagatik, haiei esker lortu den guztiagatik, baita ere, oraindik bete gabe ditugun erronka guztiak gogorarazteagatik.

Zinearen magiaren bitartez, Zinexitek honako gaiei buruz hausnartzea proposatzen digu: aniztasuna eta elkartasuna moduko balioen kudeaketa, errefuxiatuen harrera, migrazioak, pobrezia, erlijio edo kultura-pluraltasuna, genero-berdintasuna, LGTBI pertsonen eskubideak, bazterkeria eta injustizia berriak, besteak beste.

AZAROAK 19, ASTELEHENA: INAUGURAZIOA "A YEAR ON HOPE" ("UN AÑO DE ESPERANZA") FILMAREN ESTREINALDIAREKIN

Mikala Krogh, zuzendari eta giduigilea, Filipinetara joan zen urte batez "A year of hope", bere azken filma, zuzentzera. Bertan kontatzen duenez, Filipinetako Manila



hiriburuko kaleetan bizi den haur talde batek bizitza betirako aldatzeko aukera izango du. Urtebeteko egonaldia eskainiko diete haur hauei, hiriburutik urruti, irla bateko errehabilitazio zentro batean. Hango bizimoduak paradisukoa dirudi ordura arte izan duten bizimoduarekin alderaturik. Hauetako haur askok sexu-abusuak jasan dituzte, drogazaleak dira, familiarteko indarkeriaren biktima eta hilketen lekuko izan dira.

Beste ezeren gainetik dama izan nahi duen 13 urteko Tracy, eta irribarre egitea ahaztu duen 15 urteko Joshua isila dira protagonistak. “Nire seme-alabak Danimarkakoak dira, ondo etorri zitzairen bizitzaren, errealitatearen beste alde bat ezagutzea. Milioi bat haur baino gehiago bizi dira Filipinetako kaleetan, eta ezin zaie denei lagundu, filmaren mezua baikorra den arren” dio zuzendariak.

SOLASALDIA Eva Silván-ekin, SAVE THE CHILDREN-Euskadiko zuzendaria.

AZAROAK 20, ASTEARTEA: “WHEN THE WAR COMES” (“CUANDO LLEGA LA GUERRA”) FILMAREN ESTREINALDIA

Jean Gebert, filmeko zuzendariak, lehen begiratuan, ohiko europar nerabea ematen duen Peter-en istorioa azaltzen du: gurasoekin bizi da, neska-laguna dauka eta unibertsitatean dabil ikasten. Baina, bere benetako bizitza beste toki batean dago: agintarien onarpen isilarekin ehunka eslovakiar nerabe errekrutatzen dituen “Slovenskí branci” izeneko talde paramilitar bateko buruzagia da. Taldearen helburua oso argia da: gudarako prestatu eta militar prestakuntzan, obedienezian eta beldurrean oinarritutako gizarte eredu sortzea. Politikari handi batek bezala, egunen batean gizarte osoa konbentzitzen duenaz amesten du Peter-ek.

Geberten ustetan, “Demokrazia mespretxatu eta lidergo sendoa nahi duten pertsona frustratu guztiak defendatu behar dituela uste du Peter-ek. Bere harridurarako, Europa Erdiguneko buruzagi politiko askok eta baita Etxe Zurikoek ere, berak atseginez hartzen duen ikuspuntua partekatzen dutela dirudi. Gizarteak argi berdea ematen dio”.

SOLASALDIA Jesus Álvarezekin, Amnistía Internacional Euskadi

AZAROAK 21, ASTEAZKENA: “MR. GAY SYRIA”

Zinexitek hasiera ematen dio Bilboko ZINEGOAK LGTB Zinemaldiarekin sortu duen lankidetzari, saritua izan den dokumental honekin (Aipamen berezia Dokumental Luze Onenaren kategorian). “Mr. Gay Syria” filmak bi siriar gay errefuxiatuen gorabeherak jarraitzen ditu, haiek euren bizia bideratzen saiatzen diren bitartean. Husein bizargina da Istanbullen eta bizimodu bikoitza darama familia kontserbadore eta gay identitatearen artean. Mahmoud, Berlinen bizi den errefuxiatua, siriar LGBTI



mugimenduaren sortzailea da. Amets berak lotzen ditu biak: errealitate hertsien ihesbide eta ikusezin izatearen irtenbide izango duten nazioarte mailako edertasun lehiaketan parte-hartzea.

SOLASALDIA Pau Guillénekin, ZINEGOAK-eko zuzendaria, eta Adolfo Guerra, gay errefuxiatua.

AZAROAK 22, OSTEGUNA: “CITY OF GHOSTS” (“CIUDAD DE FANTASMAS”) FILMAREN ESTREINALDIA

Munduko talde odoltsuenetako batek sortutako izugarrikeria zabaltzeko estrategien lekuko bihurtzen gaituzte kamerek. Matthew Heinemann, zuzendariak, RBSSa (Raqqa Isilean Ari dira Hiltzen) sortzea erabaki zuen siriar talde bati jarraitzen dio. Ekintzaile anonimoz osatutako talde honek euren bizia arriskuan jartzea erabaki du, 2014an Raqqa bere eskuetan hartu zuen ISIS talde terroristak egindako abusuak salatzeagatik.

“Txunditurik uzten gaituen film bikain hau, informazio iturri den kazetaritzaren garrantziaren adibiderik onena bihurtu eta dokumentalak daukan indarra nabarmendu egiten da inoiz entzungo ez zenari ahotsa emateko.” (Arturo Grijalva, Cine Oculito)

“Nire ustez, guda guneetako kazetaritza mota hau, tokian bertan egiten dena, oso garrantzitsua da eta batzuetan filma horri eta zuzeneko lekukotasunari egindako omenaldia bihurtzen da.” (Matthew Heinemann, zuzendaria).

SOLASALDIA Maribel Izcuerekin, 5W aldizkariko erredaktore burua.

AZAROAK 23, OSTIRALA. AMAIERA BIKAINA: “12 ANGRY MEN” (“12 HOMBRES SIN PIEDAD”) KLASIKOAREKIN

ZINEXITen edizio hau hazi egin da mundu osoko ikus-entzuleek “klasikoak” deitzen ditugun eremu horretarantz. “12 hombres sin piedad” maisulana Sidney Lumet-en lehendabiziko lana da, Henry Fonda eta Reginald Rose ditu ekoizle, eta azken hau gidoiaren egilea ere bada. 1957ko apirilaren 13an estreinatu zen NYen, hiru Oscarretarako izendapena izan zuen eta Berlineko Urrezko Artza saria irabazi zuen. 340.000 dolarretako aurrekontu xumearekin filmatu zen 17 egunetan NYeko Justizia Auzitegi Nagusiko Epaimahaiaren Aretoan.

“Klasiko” hau dugu zineak giza eskubideen alde egin dezakeen adibiderik handienetakoa eta berarekin erabaki dugu jada ZINEXITen parte den atal honi hasiera ematea. “Filma hau ikusteko aukerarik izan ez baduzu, ez ezazu oraingo hau galdu.



Eta ikusita baldin baduzu, jakingo duzu gure bizitzako ordu eta erdi inbertitzeko erarik zoragarrietakoa dela”.

IKASLEENTZAKO EMANALDIAK

Edizio berri honetan, Zinexit-ek bizikidetzaranzko zinema zuzenduko die ikasleei, irakaskuntzan ere Giza Eskubideak jorratzea helburu duen **Zinexit Eskola** programaren bitartez. **Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. maila bitarteko ikasleek “Tom Txiki eta ispilu magikoa”** kubatar animaziozko filma ikusteko aukera izango dute. **Proiektzioa azaroaren 20an, 10:00etan** izango da Azkuna Zentroko Golem zinemetan.

Bere familia pobreziatik atera nahi duen nekazari gaztea da Tom Txiki. Ispilu Magikoa aurkitzean sortuko diren gertakariak abenturara eramango dute.

Zinexit-en ildotik, Bilboko Udaleko Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak Sailak, irudiBERRIA Elkartearen ekimena den Aniztasunaren Alde eta Diskriminazioaren aurkako **BOSA!** programa antolatu du **Bilboko DBHko ikastetxeentzat**. Edizio honetako programak “La bicicleta verde” (Arabia Saudí, 2012) filma proiektatuko du.

Haifaa Al Mansour-en opera prima honek, lehendabiziko arabiar emakume zuzendari bihurtzen du. Saudi Arabiako Riad hiriburuko aldirian bizi den 10 urteko neskatosa da Wadjda. Emakumeei edozein eskubide eta askatasun ukatzen zaizkien egoera batean bizi arren, oso alai da Wadjda, amerikar musika entzutea du atsegin eta “harekin jolastu behar ez lukeen” bere lagun Abdullah-ek daukan bezalako bizikleta bat izan nahi luke.

ZINEXIT BARAKALDO, BASAURI ETA VITORIA-GASTEIZEN

Azken urteotan egin den bezala, Zinexit-ek beste euskal udalerrri batzuetara zabalduko du bere programazioa, eta oso solidarioa den zinemaren bidaia zabaltzaile honetan Barakaldo, Vitoria-Gasteiz eta Basauri gehitu zaizkio aurren. Bilbon bezala, filmen emanaldien ondoren solasaldia izango da ikusleekin eta sarrera doakoa izango da edukiera bete arte.

Zine Erakusketa honen atariko den Zinexit Topaketak-en joan den urriaren 9an Euskadin estreinatu zen “*Razzia*” filma izango da ikusgai Barakaldoko Clara Campoamor Gizarte Etxean, azaroak 20, asteartean 18:30ean, eta Basauriko Social Antzokian, azaroak 28, asteazkenean 19:00etan. Filmak oso ondo azaltzen du Maroko garaikideak bizi duen aniztasuna, eta zuzendariaren esanetan “munduaren egoeraz” hitz egiten du ere. “Aniztasuna ezabatzeak frustrazioak izatera eta geroago biolentzia bihurtzen den gorrotora bideratzen” duen mundua. Barakaldoko solasaldian, Oxfam



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Intermon-eko ordezkari bat eta Basaurin, Amnistía Internacionaleko beste bat izango dira.

Arabako hiriburuko emanaldia berriz, Florida Zinemetan, azaroak 29, ostegunean 19:30ean izango da. Bertan, Zinexiten edizio honetako programazio ofizialeko “Mr Gay Syria” filmaren proiektzioa izango da, eta Bilboko emanaldian bezala, gay izateagatik errefuxiatua den Adolfo Guerra izango da solasaldian.

Argibide gehiago: L&V Comunicación (Itziar Villamandos)

ZINEXIT-EKO PRENTSA BULEGOA

Tel.: 94 416 08 00 / 657 796 583 villamandos@lvcomunicacion.com